Urretxuko udala

ZUMARRAGAKO UDALA

# GABONETAKO XXXIII. IDAZLAN LEHIAKETA

# URRETXU eta ZUMARRAGA - 2021

ZUMARRAGAKO
UDALA

Urretxuko udala

# GABONETAKO XXXIII. IDAZLAN LEHIAKETA

## URRETXU eta ZUMARRAGA 2021

Urretxu eta Zumarragan, 2021eko abenduaren 8an, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

ERABAKIA:

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Lan sarituak aukeratzeko orduan, **aukeraketa etapa ezberdinetan** egin da. Lehenengo etapan lan guztiak irakurri dira (247 eta 215); horrela, lan horien guztien artetik, txikien mailan 34 lan aurre-hautatu dira eta handien mailan 43. Segidan, bigarren irakurketa bat egin zaie lan aurre-hautatu horiei eta maila bakoitzeko azken aurre-hautaketa bat egin da: 12 txikien mailan eta 10 handien mailan. Azkenik 3 lanik onenak aukeratu dira maila bakoitzean.
3. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina azken irakurraldian xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
4. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa hónetara aurkeztu diren ipuin guztiak **euskaraz** idatziak izan direla kontuan hartuz.

### A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)

**247 idazlan aurkeztuta**
GAIA: "Urte hartan berekin pasa nituen Gabonak."

**1. saria**: Salma Bouzerda Amenchar
**2. saria:** Ekain Perez de Miguel
**3. saria:** Oihan Chefrad Canduela

### B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)

**215 idazlan aurkeztuta**
GAIA: "Gertaera hark erakutsi zidan beti ezin dela norberak nahi dueña lortu."

**1. saria:** Irati San Vicente Elejalde
**2. saria:** Intza Oiartzabal Amenabar
**3. saria:** Paula Ibarzabal Pozueta

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.

Urretxuko udala

ZUMARRAGAKO UDALA

# GABONETAKO XXXIII. IDAZLAN LEHIAKETA URRETXU eta ZUMARRAGA - 2021

# A MAILA SARITUAK

**1. saria:** Salma Bouzerda Amenchar
**2. saria:** Ekain Perez de Miguel
**3. saria:** Oihan Chefrad Canduela

# NIRE LAGUNA

**A MAILA 1go SARIA**
**SALMA BOUZERDA AMENCHAR**

2019ko abenduaren 23an eskola eta gero, nire lagunekin geldituta nintzen. Denak poz pozik Parke batera joan ginen harrapaketan jolastera, baina bat batean Leire lurrera ziplo erori zen eta Markel, Ane, Jon eta Karen beldurtu eta bazter batera joan ziren. Nik ongi negoen galdetzen nion, baina Leirek ez zidan erantzuten, orduan korrika parkeko aulki batean eserita zegoen emakume batengana joan nintzen eta, 112ra deitzeko eskatu nion emakumeari. Berriro ere, korrika, bere ondora gerturatu nintzen eta arnasa hartzen zuela egiaztatu nuela, DYA-koak eskolako hitzaldian esandako posturan kokatu nuen eta berehala anbulantziaren sirena hotsak

entzun nituen, bi minutu barru han ziren DYAKOAK PAULA eta bere beste bi lagunek, froga batzuk egin ondoren, Kamilan etzan eta bizia salbatu niola esan ondoren, anbulantzian sartu zuten. Hurrengo eguna gabon eguna zen, eta eskatutako oparien zerrenda puskatu eta beste gauza bakar bat eskatu nion olentzerori, Leire bizirik ateratzea. Hori pentsatu eta amaren mugikorrak jo zuen, ospitaletik deitzen zuten, nire eskaera bete zen! Leire ondo zegon eta etxera bidaltzen zuten! urte hartan berarekin pasa nituen gabonak. ez dut inoiz ahaztuko une haietan bizitakoa, ordundik egun hori elkarekin ospatzen dugu.

## GABONETAKO XXIII. IDAZLAN LEHIAKETA

**A MAILA 2 SARIA**

**EKAIN PEREZ DE MIGUEL**

Iaz, abenduko zubian, nire familiarekin Lego fabrika bisitatu nuen. Bidaia luzea izan arren, dibertigarria izan zen. Piezak nola egiten zituzten ikusi ondoren, Lego museoa ezagutzeko aukera izan nuen.

Milaka eta milaka pieza ikusi nituen han, Gabonetako oroigarriak, izarrak, elur panpinak... Sekulakoa izan zen! Bisitarien artean gorpuzkera sendoko gizon bizarduna zegoen. Bere arropak atentzioa eman zidan: txapela, alpargatak... Olentzero izango ote da? - pentsatu nuen. Gizonari segika ibili nintzen. Bertako langileak galderaz josi zituen eta begiak argitu zitzaizkion jostailuak egiten zoriontsuak zirela jakin zuenean. Museotik poz-pozik joan zen, poltsikotik izar formako pieza txiki bat erortzen zitzaiola konturatu gabe.

Etxera bueltatu ginenean, jasotako izarra jaiotzan jarri nuen. Gabon-gauean, afaltzen ari ginenean, izartxoa diz-diz egiten hasi zen. Aho zabalik geratu nintzen. Zalantzarik gabe, gizon hura Olentzero zen! Urte hartan, bere izarrarekin pasa nituen Gabonak.



# GABONETAKO XXIII. IDAZLAN LEHIAKETA

**A MAILA 3 SARIA**
**OIHAN CHEFRAD CANDUELA**

Mmmm... zein ondo usaintzen duen! Amak txaka eta kroketak prestatzen dituen bitartean, aitak postre ederra atondu du. Gabon-gaua oso gogoko dut! Ohi bezala, gurtiok elkartzekoak gara: aiton-amonak, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinak. Ez dago zertan urduritu baina beste behin estu eta artega izango gaitu Olentzerok. Oraindik gogoan dut aspaldian igaro genuen paradizoa...

Esnatu nintzenean, elurra ari zuen. Poz handia hartu nuen eta xixt bater lerarekin kaleratu egin nintzen. Aldapan behera abiada handia hartu nuen eta, ibilgailua galgatu ezinik, blai eginda bukatu nuen. Uste baino lehenago etxera bueltatu behar izan genuen. -Shhh!- agindu zidan amak etxeko sarreran. Izei atzean erkutatzeko keinuak egiten zizkidan aitak. Haien begien seriotasunak eta sukaldeko zaratek beldurtu ninduten. Hala ere, ez nuen obeditu.

Poliziari telefonoz deitzen zioten bitartean, sukaldera joan nintzen Olentzero ezagutu nahian. Nire urduritasuna harridura bihurtu zen, birilaguna janaria lapurtzen aurkitu nuenean. Dirurik ezean bere familiagatik kerkatuta zegoen eta barkamena eskatu zuen. Urte hartan beraiekin pasa genituen Gabonak.

Urretxuko udala

ZUMARRAGAKO UDALA

# GABONETAKO XXXIII. IDAZLAN LEHIAKETA URRETXU eta ZUMARRAGA - 2021

# B MAILA SARITUAK

**1. saria:** Irati San Vicente Elejalde
**2. saria:** Intza Oiartzabal Amenabar
**3. saria:** Paula Ibarzabal Pozueta

B MAILA 1GO SARIA
IRATI SAN VICENTE ELEJALDE

## BIZITZA BERRIA

Egun polit bat irten da gaur. Abendua aurrera doa, eta Gabonak iristeko irrikaz nago.
-Mara! Bazkaltzera!
Aitak deitu nau. Eta argitzeko, nik Mara dut izena eta 10 urte ditut. Bazkaldu ondoren, ikastolara joan naiz, eta Gabonetako festa batera gonbidatu naute lagunek. Etxean proposatu dut, baina gurasoak ez daude beti bezala.
-Zer gertatzen da?-galdetu dut.
-Aitak eta biok zerbait esan behar dizugu.-erantzun du amak.
Urduri jarri naiz. Zer esango didate gurasoek?
-Ez dira Gabon arruntak izango...
-Zergatik? Ez dut ulertzen.
-Zera... Lan bat eskeini digute herritik urrun, eta onartu egin dugu.-esan du aitak.
-Nola? Baina nik, hemen gelditu nahi dut! Lagunekin, familiarekin, ikastolan, etxean...
Opari ikaragarri txarra jaso dut. Baina gurasoek oraindik txarragoa.

Ostirala iritsi da, joateko garaia. Orain dela hiru egun esan zidaten ustekabean etorri zen berri hau. Maletak egin ditut, eta nire gela hutsik geratu da. A ze Gabonak!
Lehengo eguneko eztabaidak ez du ezer aldatu. Berdin berdin goaz hemendik. Zaila izan da niretzat, familiaz, lagunetaz, etxe honetaz eta gauza askotaz agurtzea. Azkenean, nire bizitza osoa egon naiz hemen, beraiekin. Autoan sartu naiz. Gaur, ez naiz ikastolara joango. Ez dut nik nahi dudana lortu, baina bakarrik espero dut, noizbaitean inguruko gauza eta pertsona hauek ikustea.

Agian, denbora asko eramango digu leku honetara egokitzea, eta ez niri bakarrik, gurasoei ere bai. Hala ere, bizitzeko aukera berri bat izan daitekeela pentsatu dut. Nahiz eta betiko bizitza ez egin, lagun berriak egingo ditut. Etxea ez dago hain gaizki, eta tarteka, familikoak bisitatzera joango garela esan didate. Orain pozik nago. Bizitza berria da, baita Gabonak pasatzeko aukera berri bat ere.

**B MAILA 2. SARIA**
**INTZA OIARTZABAL AMENABAR**

# GABONETAKO IPUIN LEHIAKETA

Orain dela urte gutxi batzuetako gabonetan, Zumarraga-Urretxun, nire herrian, niri gertatutako gauza bat kontatuko dut.

Ikastola bukatzear zegoen, bi egun besterik ez ziren falta, eta esnatzean dena elurtuta zegoen. Herri guztia Gabon kutsua hartzen ari zen, elurra zegoen, gaztainak eta txurroak zeuden salgai... gauetan ere, argiak pizten ziren herri osoan. Gainera bi urteren ondoren, normal ospatu zitezkeen. Olentzero eta Maridomingirentzat opari-zerrenda eginda neukan: mugikor bat, praka batzuk, zapatilak, jokoren bat, errotulagailu berriak, arropa... Oso zerrenda luzea neukan. Goiz batean lagunekin eskutitza postontzira botatzera joan ginen, eta gero txurro batzuk erosi genituen. Sekulako gogoa nuen gabon gauerako, eta Ikastolako azken aurreko egunean, abestiak entsailatzen ibili ginen.

- Olentzero joan zaigu, mendira lanera, intentzioarekin...-lehenengo abestia hau izan zen, eta ondoren:
- Hator, hator mutil etxera...
- Din dan don, din dan don...-eta horrela beste askorekin.

Azken egunean, 24 goizean egin behar genuena ondo azaldu ziguten eta azkenean, oporrak. Gogo handia neukan oparietarako, momentu horretan gehien desiratzen nuena zen. Hurrengo goizean, goiz esnatu, eta baserritar jantzia jantzi nuen, eta gelakideekin abestera atera ginen. Gaua iritsi zen, eta familiakoekin afaltzen negoenean oparietan besterik ez nuen pentsatzen. Berandu iritsi ginen etxera eta korrika batean ohean sartu nintzen. Esnatu nintzenean, Gabonetako zuhaitzera joan nintzen, eta ez zegoen oparirik. Asko haserretu nintzen.

- Eskatu dudan guztiarekin ez didate ezer ekarri-pentsatu nuen.

Jantzi eta haserre kalera atera nintzen. Lasai ibiltzen nindoala umetxo bat negarrez ikusi nuen dirua eskatzen. Zer gertatzen zitzaion galdetu nion, eta ez zuela familia esan zidan. Sekulako pena eman zidan, bonboi batzuk erosi nizkion eta nirekin eta nire familiarekin bazkaltzera gonbidatu nuen. Eskerrak eman zizkidan, eta batera bazkaldu genuen.

Bazkaldu ondoren, umezurtzak zeuden etxe batera eraman genuen, horrela zaindu egingo zuten eta guraso izan nahi zuen pertsona batek, adoptatu nahi bazuen, aukera izango zuen. Eguna oso pozik bukatu nuen. Banekielako, gauza on bat egin nuela.

Hurrengo goizean, komunera nindoala, zuhaitzean nik eskatutako opari guztiak zeudela konturatu nintzen. Olentzerok eta Maridomingik utzitakoak. Atzo ondo portatu nintzelako izango zela pentsatu nuen. Oso pozik negoen baina, atzo ikusitakoarekin pentsatu nuen: zertarako behar ditut opari hauek guztiak? Opari bat aukeratu nuen niretzat eta besteak umezurtzen etxera eraman nituen. Emandakoan denak poz pozik jarri ziren, eta horrek bai eman zidala poztasuna, negar malko bat ere erori zitzaidan. Horrela bukatu ziren urte hartako nire Gabonak.

**GERTAERA HARK ERAKUTSI ZIDAN BETI EZIN DELA NORBERAK NAHI DUENA LURTU.**

## GABONETAKO XXIII. IDAZLAN LEHIAKETA

**B MAILA 3. SARIA**
**PAULA IBARZABAL POZUETA**

USTEKABEKO BIRUSA

2019ko abenduaren 1ean, nire familiarekin lasai-lasai afaltzen nengoela, bat-batean telebistan entzun genuen Txinan birus arriskutsu bat agertu zen. Ez ginen asko larritu Txina oso urruti bait dago.

Konturatu gabe hilabeteak pasa ziren eta martxoan genuen, gure zorte txarrerako birusa, COVID-19 deitu, mundu osora zabaldu zen eta konturatu nahi ginenerako, etxean konfinatu gintuzten.

Hiru hilabete pasa ondoren, berriro ere kalera airea arnastu egin ahal izan genuen. Uda desberdina eduki eta gero eskolara bueltatu behar izan ginen. Gustia aldatu zen, maskarilla derrigorrezkoa zen leku guztietan, distantzia mantendu behar genuen... eta konturatu orduko lehenengo ebaluazioa pasatu zitzaigun.

Urtea benetan luzea eta gogorra izan zen. Egia da gizon-emakume eta umeak denetara ohitzen garela eta hori benetan egia dela erakutsi genuen.

2020ko abendua iritsi zen eta neguarekin batera gabonak. Ez genekien nolakoak izango ziren. Gure senideekin ospatu ahal izango genituen? Kaleak eta etxeak apaindu

genituen, senitartekoak eskutitz bidez zoriondu genituen eta giroa berotzen hasi zen.
Gabonak niretzako oso bereziak dira, etxea maitasunez eta parrez betetzen da eta gabon gaua bereziki, benetan urteko gaurik zoragarriena da. Nik gabonetan desio dudan bakarra mahai inguruan aiton-amonak, izeba-osabak, lehengusuak, ahizpak eta gurasoak elkarrekin egotea da, goxo-goxo afaldu, abestu eta mahai jokuekin tenpora batzuk galtzea. Olentzero tripontziaren zai egoten gara lehioan ere baina ez da inoiz agertzen. Ez dakit nola, opariak uzten ditu baina horrek ez dit axola nik nahi dudana familiarekin elkartuta egotea da.
Baina nire zoritxarrerako iazko gabonetan ezin izan nuen nire desioa bete. Lehendakari jaunak arau batzuk ipini zituen eta lehenengoa, mahai inguruan 6 pertsona bakarrik egon zitekeela zen. Nire etxean 5 gara berez nola demontre bilduko ginen?
Familia ikusi, ikusi genuen bideokonferentziaz eta gabonak zoriondu genituen ere bai baina ez zen gauza bera izan. Gabon gauaren magia ez nuen sentitu eta lilurazko COVID horrek kendu ziduna ezin da deskribatu.
Aurten gabonak iristear daude eta "nik gehien nahi dudan bakarra" senitartekoak mahai inguruan elkartzea da.
Posible izango al da?